

## Literatura larrutuz

**Koordinazioa: Iratxe Retolaza**

**Izena emateko epea: Martxoak 19.** Izena emateko zure izen-abizenak eta telefono zenbakia bidali [arteleku@gipuzkoa.net](mailto:arteleku@gipuzkoa.net) helbidera

Literatura eta gorputzaren arteko harremanaz gogoetabideak zabaltzea izango da irakurketa-saio hauen helburua. Horretarako, literaturara hurbiltzeko begirada zehatz bat garatuko dugu: gorputzaren eraikuntzaren eta errepresentazioaren inguruko hausnarrera bilduko den begirada. Larruaren geografien inguruko eztabaida honako literatura-lan hauen irakurketarekin zabalduko da: Miren Agur Meaberen *Azalaren kodea*, Uxue Apaolazaren “Bueltak” narrazioa, Anjel Lertxundiren *Zoaz infernura, laztana*, Anjel Erroren *Gorputzeko humoreak*, Eider Rodriguezen “Haragia” narrazioa, Uxue Alberdiren *Aulki-jokoa*. Irakurgai hauen bitartez gorputzaren inguruko hainbat azterbide landuko dira: sexualitatearen eraikuntza, nortasun fisikoaren errepresentazioa, zahartzaroaren zama...

**Eguna:** asteazkena, 19:00etan

**Irakurgaiak:**

**Martxoak 24:** Miren Agur Meaberen *Azalaren kodea*

**Apirilak 14:** Uxue Apaolazaren “Bueltak” narrazioa, Anjel Lertxundiren *Zoaz infernura, laztana*

**Apirilak 28:** Anjel Erroren *Gorputzeko humoreak*

**Maiatzak 12:** Eider Rodriguezen “Haragia” narrazioa, Uxue Alberdiren *Aulki-jokoa*

*Irakurketa taldea euskeraz aurrera eramango da.*